

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua ondo funtziona dezan, beharrezkoa da funtsezko jarduerak zeintzuk diren argi izatea. Funtsezko jarduerak dira enpresa batek egin behar dituen ekintza garrantzitsuenak, bere negozio-ereduak funtziona dezan eta bezeroei eskaintzen zaien balioa sortu ahal izateko.

Gure kasuan, funtsezko jardueretako bat ekoizpena da. Hau da, baserritarrek emandako lehengaiak jasotzea, prestatzea eta azken produktua sortzea. Jarduera hau gure proiektuaren oinarria da, eta ezin da kanpoko enpresen esku utzi, gure lan egiteko moduarekin eta kalitatearekin zuzenean lotuta dagoelako. Ekoizpena ondo egiteak bezeroek espero duten produktua jasotzea bermatzen du.

Beste jarduera garrantzitsu bat arazoak konpontzea da: Eguneroko lanean arazoak sor daitezke, adibidez hornikuntzan, ekoizpenean edo bezeroekin. Horrelako egoeretan, garrantzitsua da jarrera azkar bat hartzea eta irtenbide egokiak bilatzea, proiektuak ondo funtzionatzen jarrai dezan.

Horretaz gain, plataforma edo sarearekin lotutako jarduerak ere funtsezkoak dira. Horien artean daude webgunea edo online denda kudeatzea, mantentzea eta sustatzea, baita sare sozialen bidez proiektua ezagutaraztea ere. Jarduera hauek oso garrantzitsuak dira bezeroekin harremanetan egoteko eta proiektua ikusgarriagoa egiteko.

Batzuk kanpoko enpresei eman daitezkeen arren, gure proiektuaren funtzionamenduari eta gure lan egiteko moduari lotutako jarduerak ezin dira besteen esku utzi. Horregatik, funtsezko jarduera horiek guk geuk egiten eta kontrolatzen ditugu.

Ondorioz, ekoizpena ondo antolatzea, arazoak konpontzea eta plataforma digitalak kudeatzea funtsezko jarduerak dira gure negozio-ereduan. Jarduera hauei lehentasuna emanez, gure proiektua modu sendo eta egonkorrean aurrera eramatea posible da.